Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

| Euskara | Castellano |
|---|---|
| **Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.**<br><br>**VIII. ERANSKINA: EZAGUTZA** | **Programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa.**<br><br>**ANEXO VIII: EZAGUTZA** |
| **Urtea :** 2024 \| Ekonomia Sustapena | **Año:** 2024 \| Promoción Económica |
| **DESKRIBAPENA**<br><br>Aldeko testuingurua sustatzea trantsizio ekologiko, sozial eta ekonomikoek eragingo dituzten aukerak sortzeko, eraikitzeko eta/edo aprobetxatzeko, ikerketaren, transferentziaren eta hedapenaren bidez, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoa balio erantsi eta/edo jasangarriko, gaitasun berrien garapeneko eta kalitatezko enpleguko eremuetara eramateko.<br><br>**ENTITATE ONURADUNAK**<br><br>- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartuak dauden eta Gipuzkoan kokatuta dauden entitateak.<br>- Gipuzkoan kokatutako enpresa-elkarteak eta klusterrak.<br>- EAEn kokatuta dauden eta Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituzten enpresa elkarteak eta/edo klusterrak.<br>- Dirulaguntzaren xede diren gaietan espezializatutako zerbitzu aurreratuen enpresak, Gipuzkoan kokatuak.<br><br>**DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK**<br><br>Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauek izango dira:<br>- Funtsezko ikerketa proiektuak. | **DESCRIPCIÓN**<br><br>Promover un contexto favorable para crear, construir y/o aprovechar oportunidades que van generar las transiciones ecológicas, sociales y económicas a través de la investigación, su transferencia y difusión que transforme el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa hacía ámbitos de valor añadido y/o sostenible, desarrollo de nuevas capacidades y empleos de calidad.<br><br>**ENTIDAD BENEFICIARIA**<br><br>- Entidades pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación radicadas en Gipuzkoa.<br>- Asociaciones empresariales y/o clusters radicadas en Gipuzkoa.<br>- Asociaciones empresariales y/o clusters radicadas en la CAPV que representen intereses de empresas radicadas en Gipuzkoa.<br>- Empresas de servicios avanzados especializadas en las temáticas objeto de subvención radicadas en Gipuzkoa.<br><br>**ACTUACIÓNES SUBVENCIONABLES**<br><br>Las actuaciones subvencionables consistirán en:<br>- Proyectos de investigación fundamental. |

- Ikerketa industrialeko proiektuak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak.
- Interes bereziko ekintza osagarriak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) erakunde bat, gutxienez, barne hartzen duten ekintzak, prospektiba eta zaintza azterlanak egiteko; eta lankidetza, transferentzia, dinamizazioa, sustapena, hedapena eta zabalkundea bultzatzeko ekintzak, funtsezko eta industria arloko ikerketa proiektuekin lotutako jarduеretan.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak honako gai hauetara bideratuta egongo dira:

- Balio erantsiaren aukera.
- Jarduera ekonomikoaren jarraipena.
- Enpresen arteko lankidetza.
- Ekonomia sortzailea.
- Enplegu-gune berriak.

## DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta VIII.eranskina - 5.oinarri aldatua).

## DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzen ehunekoak honako hauek izango dira:

a) Funtsezko ikerketa proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100.
b) Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.

- Proyectos de investigación industrial.
- Proyectos de desarrollo experimental.
- Acciones complementarias de especial interés: Aquellas acciones que integren al menos a un organismo de la RVCTI para desarrollar estudios de prospectiva y vigilancia, acciones para favorecer la cooperación, la transferencia, dinamización, impulso, la difusión y la divulgación en actividades vinculadas a proyectos de investigación fundamental e industrial.

Las actuaciones subvencionables estarán orientadas a las temáticas:

- Oportunidad de valor añadido.
- Continuidad de la actividad económica.
- Colaboración interempresarial.
- Economía creativa.
- Nuevos yacimientos de empleo.

## COSTES SUBVENCIONABLES

Se considerarán costes subvencionables aquellos costes que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma, y resulten estrictamente necesarios. (ver costes subvencionables anexo I base 12ª y anexo VIII base 5ª modificada).

## CUANTÍA DE LAS AYUDAS

Los porcentajes de ayuda serán:

a) En los proyectos de investigación fundamental el 100% de los costes subvencionables.
b) En los proyectos de investigación industrial el 50% de los costes subvencionables.

c) Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.
d) Interes bereziko ekintza osagarrietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 funtsezko ikerketa proiektuei lotuta badaude, eta % 50 ikerketa industrialeko proiektuei lotuta badaude.

(Ikusi dirulaguntzen gehiengo ehunekoak gehitzea VIII.eranskina – 6.2 oinarria).

## EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

VIII. Eranskineko dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, ekainaren 17ko 651/2014 Erreglamendu Orokorrak, kategorien araberako salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.

## BETETZEKO EPEAK

-Eskaerak aurkezteko epea: **2024ko ekainaren 20an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

-Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

-Proiektuen exekuzio data: **2025eko ekainaren 30.**

-Proiektuak justifikatzeko data: **2025eko uztailaren 30a.**

c) En los proyectos de desarrollo experimental el 25% de los costes subvencionables.
d) En las acciones complementarias de especial interés el 100% de los costes subvencionables si están asociadas a proyectos de investigación fundamental y el 50% si están asociadas a proyectos de investigación industrial.

(Ver incrementar el porcentaje de las subvenciones anexo VIII base 6.2).

## PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

## COMPATIBILIDAD O INCOMPATIBILIDAD

Las subvenciones del Anexo VIII serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales hasta el máximo previsto en la normativa del Reglamento General de exención por categorías n.º 651/2014, de 17 de junio.

## PLAZOS A CUMPLIR

-Plazo de presentación de solicitudes: **20 de junio de 2024 a las 12:00 horas.**

-Plazo de inicio de las actuaciones: **con posterioridad a la solicitud de la ayuda, dentro del año natural.**

-Fecha de ejecución de los proyectos: **30 de junio de 2025.**

Fecha de justificación de los proyectos: **30 de julio de 2025.**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

**Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2024ko oinarri arautzaileak eta deialdia:** VIII.ERANSKINA - **Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzea.** (Oinarriak: 2021/06/15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartu zen - 2021/06/18ko GAO 114 zk. eta Diputatuen kontseiluaren 2022/05/10eko eta 2023/02/07ko akordioa baten bidez aldatu - 2022/05/20ko GAO 95 zk. eta 2023/02/16ko GAO 32 zk. 2024 deialdia: 2024/05/07ko Diputatuen erabakiz onartu zen - 2024/05/16ko GAO 94 zk).

## ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ezagutza

- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENEKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112009

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus

## NORMATIVA APLICABLE

**Bases reguladoras y convocatoria 2024 del programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa:** ANEXO VIII- **Promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa.** (Bases: Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 15/06/2021 BOG: nº 114 de 18/06/2021 y modificado por los acuerdos de Consejo de Gobierno Foral de 10/05/2022 y 07/02/2023 - BOG nº 95 de 20/05/2022 y BOG nº 32 de 16/02/2023. Convocatoria 2024: Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 07/05/2024 - BOG nº94 de 16/05/2024).

## PASOS A DAR PARA REALIZAR LA SOLICITUD

- Información y documentos
https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/conocimiento

- Aplicativo para gestionar la solicitud
http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa

## PARA CUALQUIER DUDA O ACLARACIÓN CONTACTAR CON

SERVICIO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA

Gestión administrativa: 943.113981

Gestión técnica: 943.112009

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus